

### 3. AZTERKETARIA

#### OROKORRA C1<sup>+</sup>

##### C1

Ongi menderatzen ditu hizkuntzaren hainbat alderdi, eta horrek aukera ematen dio gai orokor, akademiko, profesional eta aisiakoei buruz argi eta estilo egokian jarduteko formulazioa aukeratzeko, esan nahi duenari mugak jarri gabe.

Irakurri duen testuaren informazioa oso egoki ematen du; ideia nagusiez gain, ñabardurak ere aditzera ematen ditu, nahiko zehaztasun handiz (adibidez, lehiaketa zertan datzan eta lehiakideek zer egin behar duten azaltzerakoan). Ideiak egoki aukeratzen ditu (gaia, definizioa, helburua eta azalpena), eta era oso ulergarrian adierazten ditu. Ahaleginik kasik egin gabe ulertzen da esaten duen guztia. Oso natural hitz egiten du, erritmo bizian eta ez du arazorik adierazi nahi duena adierazteko. Badakizki esapide bereziak, eta egoki erabiltzen ditu hizkera jasoa eta lagunarteko esamoldeak; gainera, esanahiaren ñabardurak bereizten ditu.

Adierazi nahi duena esateko behar duen lexikoaren jabe bada. Lexiko zehatza, aberatsa eta egokia erabiltzen du, eta gai da —beharrezkoa ikusten duenean— ñabardurak egiteko edo ideiak azpimarratzeko.

##### C2

Malgutasun handia du ideiak berriro formulatzeko, eta hizkuntza-moldeak bereizten ditu, ñabardurak zehatz-mehatz adierazteko, ideiak azpimarratzeko, bereizketak egiteko eta anbiguotasuna saihesteko. Gainera, esapide bereziak eta lagunartekoak menderatzen ditu.

Gaitasunen aldetik C2 izan badaiteke ere, eskatutako ataza edo ariketa egiteko behar dituen hizkuntza-baliabideak ez dira C2 mailakoak, baina bai C1 maila baino jasoagoak. Hori dela eta, C1<sup>+</sup> dela esan liteke.

#### ZUZENTASUNA C2

Hizkuntzaren maila konplexuari dagokion gramatika ongi menderatzen du, nahiz eta beste alderdi batzuei (adibidez, solaskidearen erreakzioen jarraipenari edo planifikazioari) arreta eman.

Diskurtso oso zuzena eta aberatsa egiten du. Ez du ia akatsik egiten eta, egiten duen gutxitan, berehalaxe zuzentzen du (*...argazkiak atera zitzaien zitzaizkien zabor bitxienei*).

## JARIOA C2

Gai da bat-batean eta xehetasunez jarduteko, berezko jarioasunez eta lagunarteko hizkeran eta zailtasunak besteak ia ohartu gabe saihesteko moduan.

Oso jario naturala du. Ideia jasoagoa edo abstraktuagoa adierazi behar izaten duenean ere, zailtasunak saihestu eta oso modu naturalean aritzen da.

## KOHERENTZIA C1<sup>+</sup>

### C1

Diskurtso argia, jarioasun handikoa eta ongi egituratua sortzen du, eta antolaketa-egiturak, lokailuak eta beste kohesio-mekanismo batzuk modu egokian erabiltzen ditu.

Diskurtsoa egoki antolatzen du. Diskurtso koherentea eta kohesioduna osatzen du, eta erraz ulertzen da zer esan nahi duen. Hala ere, ideia batetik besterako jauzian, askotan kohesio-elementu bera erabiltzen du (*esan beharra dago...; beraz...*).

### C2

Diskurtso koherentea eta kohesioduna osatzen du, antolaketa-egituren erabilera osoa eta egokia eginez, eta lokailuak eta beste kohesio-mekanismo asko erabiliz.

Beraz, 3. azterketariak diskurtso koherentea eta kohesioduna osatzen badu ere, kohesio-elementuetan ez du erakutsi C2 mailak beharko lukeen aberastasunik; esaterako, ideiak gehitzeko, behin eta berriro forma bera erabiltzen du: *esan beharra dago*.

## ELKARRERAGINA C2

Gai da elkarrizketan erraztasunez eta trebetasunez jarduteko, ez-ahozko kodeei eta intonazioari antzemateko eta horiek zailtasunik gabe erabiltzeko.

Egokitu zaion tesia oso modu egokian defendatzen du. Eman zaizkion heldulekuak oso egoki erabiltzen ditu. Era askotako argudioak erabiltzen ditu, eta argudio horiek erraz justifikatzen ditu, askotariko hizkuntza-baliabideak erabiliz. Gainera, solaskidearen jarduna ere beti izaten du aintzat (*esan duzu orekatuago jaten dela, baina ez nago batere ados horrekin...; lehen argudioaren kontra esango dut... eta gero, denbora aldetik esan duzuna janarina...*).

3. azterketaria gai da elkarrizketan erraztasunez eta trebetasunez jarduteko; beraz, esan liteke C2 maila erakutsi duela.